

## B AUKERA

### Ballet klasikoa: birtuosismoa eta ikusgarritasuna

Errusian, balletak gorteko arte-diziplina izaten jarraitu zuen, tsarren gustu eta jardueren bilakaerarekin estuki lotua, Mendebaldeko Europako beste toki batzuetan ez bezala, non balletaren irudikapena demokratizatu eta herritartu egin zen. (...)

1847an, Espainiatik ihesi, Marius Petipa San Petersburgon finkatu zen, non 1869an Ballet Inperialeko zuzendari izatera iritsi zen, 1910ean hil zen arte. Testuinguru horretan, haren ekarpenik handiena Italiako oinarriak eta Frantziako ondarea errusiar kulturarekin lotutako adierazpen batean uztartzea izan zen. XX. mendeko historiografiak dantza-joera hori "ballet klasiko" izendatu zuen, modernismoaren ondorengo erantzunen aurrean kanon bihurtu zen neurrian; baina, hala ere, izen hori eta "errusiar ballet" izendapena trukagarriak dira neurri handi batean, biek egiten baitiote erreferentzia Petiparen ondare itzelari eta haren ondorengo eraginei.

Petipa ballet askoren egilea izan zen, eta haien artean zenbait lan gorde dira, denboran zehar aldaketa asko izan badituzte ere: *On Kixote* (1869), *La bayadère* (1877), *Loti ederra* (1890), *Zisneen lakua* (1895, Lev Ivanovekin batera koreografiatu zuena) eta *Raymonda* (1898), baita lehenagoko piezen beste bertsio batzuk ere. Ballet haiek operatik behin betiko independente izatera iritsi ziren ikuskizun handi gisa sortu zirelako; izan ere, hiruzpalau ekitaldira luzatu zen haien iraupena eta eszenaratze oso landuak eta era guztietako baliabideak zituzten. Ballet erromantikoaren istorioak kontatzearekin batera, Petiparen proposamenek multzoari konplexutasuna eta aberastasuna gehitzen zioten hainbat egitura erakusten zituzten: ballet-taldearen mugimenduak, bakarlariantzako bariazioak, divertimentoak, dantza estilizatuak eta *grand pas d'action* eta *grand pas de deux* izenekoak (...). Obrak birtuosismo-koda batean amaitzen ziren: emakume dantzariak hainbat biraketa edo zailtasun handiko urrats txikiak egiten zituen oin-punten gainean, eta gizon dantzariak, berriz, jauzi eta desplazamendu handiak; ondoren, elkarrekin, apoteosia.

### Erreferentzia:

Murga, I. (2023). *La danza. Cuerpos en movimiento a través de la historia*. Cátedra [140-141 or.]

### Bideoak:

- <https://www.youtube.com/watch?v=pIFfEMrebBs>
- <https://www.youtube.com/watch?v=qy6dlGpC3Ns>